



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



**Bilbao**

UDALA  
AYUNTAMIENTO

# LAUTAN HIRU

## ANTZERKI TXIKIA - FESTIBAL HANDIA

Antzerki-ekoizpenari laguntza (800 euro + beste 1.200 euro lana 2024ko LAUTAN HIRU jaialdian estreinatzen bada)

- Euskaltzaindiak antzerki-ekoizpena sustatzeko laguntza sortu zuen 2020an, Bilboko Udalaren babesarekin. Aurtengoa laugarren aldia izango da.
- Helburu nagusia euskarazko antzerkia hauspotzea da, batez ere, pieza laburren sorkuntzari lagunduta. Horrez gain, hautatutako lana jendurrean estreinatzeko aukera ere emango zaio sarituari (epaimahaiak hala baderitzo, ekoizpenaren jarraipena egin ostean).

### Oinarri-arauak

- Antzezlanek, gehienez ere, 30 minutu eta, gutxienez, 15 minutuko iraupena izan behar dute.
- Testuek euskaraz idatzita egon behar dute.
- Antzezlanak jatorrizkoak eta estreinatu gabekoak izan behar dira; hau da, ez da beste hizkuntza baten itzulpenik edo antzezlan luzeago baten moldaketarik onartuko.
- Era berean, ez dira onartuko antzerako beste laguntzaren bat jaso duten piezak.
- Bakarriketak ere onartuko dira.
- Lanak areto txikietan antzezteko modukoak izango dira; hau da, formatu txikikoak; hots, giza baliabide eta beharizan tekniko gutxi eskatzen dutenak.

### Gaia eta moldea

- Libreak izango dira.

## EPAIMAHAIA ETA AUKERAKETA

- Epaimahaia LAUTAN HIRU antzerki-jaialdiko arduradunek osatuko dute.
- Epaimahaiak lan bakarra hautatuko du.
- Epaimahaiak laguntza ez ematea ere erabaki dezake.
- Epailen erabakia apelaezina izango da. Saria 800 euroko laguntza gidoiari + beste 1.200 euro antzezlanaren 2024ko LAUTAN HIRU jaialdian estreinatzen bada (epaimahaiak erabakiko du hori, ekoizpenaren jarraipena egin ostean).

## EPEAK

- Gidoiak bidaltzeko epea 2023ko irailaren 15ean amaituko da.
- Parte hartu nahi dutenek lanari buruzko ahalik eta informazio gehien bidali beharko dute posta elektronikoz.

## BIDALI BEHARREKO DERRIGORREZKO DATUAK

1. Taldearen izena.
2. Jatorrizko testua (testu-fitxategi batean edo PDF formatuan).
3. Antzezlanaren zuzendariaren eta gidoilariaren izenak.
4. Antzezleen izenak.
5. Laburpena.
6. Gutxi gorabeherako iraupena.
7. Antzezteko tokiaren ezaugarriak eta beharizan teknikoak. Piezaren bideo laburra -lagin bat- ere lagungarria litzateke.

**Informazioa posta elektronikoz bidaliko da Euskaltzaindiaren helbide honetara: [info@euskaltzaindia.eus](mailto:info@euskaltzaindia.eus), mezuaren GAIA n hauxe adierazita: 'LAUTAN HIRU antzerki-ekoizpenari 2024ko laguntza'.**

## ANTZEZLANEN JABETZA

Ikuskizunaren jabetza eta lana beste kulturgune batzuetan antzezteko eskubidea muntaia egiten duen talde edo konpainiarena da, baina etorkizunean egingo litzaketen emanaldien publizitatean beren-beregi azaldu beharko litzateke 'LAUTAN HIRU ekoizpen-laguntza' jaso duela.